



Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea



KAZETARITZAKO GRADUA
IKASTURTEA 2018-2019

**FOTOKAZETARITZA ETA
MEMORIA HISTORIKOA:
EGUNGO EGOERA
HOBIEN BILAKETATIK
OMENALDIETARA**

EGILEA: Sara Amatriain Jimenez

ZUZENDARIA: Maria Gonzalez Gorosarri

“1936ko Gudatik 83 urte igaro diren arren, memoria historikoak gatazkak sortzen ditu oraindik.

Toki ezezagunetan lurperatutako gorpuzkiak, eta horrek urteetan eragindako ezinegona da gatazka horien eragile nagusiena. Proiektu pertsonala bihurtu da fotokazetaritza lan hau, nire familian trebatzeko lagungarria izan delako eta alderdi ezezagunak zehakatu ditudalako.”

Sara Amatriain Jimenez

AURKIBIDEA

1. SALAKETA FOTOERREPORTAJEA

*Hiru gehiago
hiru gutxiago
ere badira*

06. - 17. or.



2. FOTOERREPORTAJE NARRATIBOA




*Eztabaida
guztien
gainetik*

18. - 33. or.

3. FOTOERREPORTAJE ARTISTIKOA

*Historia
ez dadila
errepikatu*

34. - 57. or.



4. FOTOERREPORTAJE SOZIALA



*83 urte
geroago*

58. - 79. or.

5. KALE-FOTOERREPORTAJEA

*Aurrera egin,
gogoan izanda*

80. - 99. or.



Hiru gehiago hiru gutxiago ere badira

San Kristobaleko kartzelan izandako hiru presoen gorpuzkiak aurkitu dituzte Etulainen (Nafarroa). Aranzadi Zientzia Elkarteak abenduaren 16an gauzatu du deshobiratze prozesua. Hiru presoek adina 20 eta 23 urte bitartekoa zen. Hauek fusilatu eta gero, leku berean lurperatu zituzten gorpuzak.





“Ihes egin zuten preso guztien artean soilik hiruk lortu zuten Frantziako muga gurutzatzea”, aipatu du Santiago Macíasek *Las Fosas de Franco* liburuan gertaera honen inguruan.

Amaia Kowasch gizarte langile eta ikertzaileak ikerketa sakon bat gauzatu du garaiko emakumeek presoek eskaintako laguntzaren inguruan. Kowaschek *Sreak ehotzen: San Kristobal Fuerteko presoekin elkartasuna izan zuten emakumeak (1934 - 1945)* liburuan jaso ditu ikerketaren emaitzak. Bere informazioen arabera, erregimenak bi alderdi nagusitan zigortu zituen familiak. Batetik, errepresioa eginez, hau da, hauek umiliatuz eta ondasunak eta lana kenduz, eta bestetik, bere ahaide presoak beste lurralde batzuetara bidaliz.



“1915/38 sumarioaren arabera, goseak eragindako etsipena eta tuberkulosiak eragindako hildako kopurua izan ziren presoek ihesaldira gehitzearen arrazoi nagusiak”, aipatu du Ezkietak testigantzaz jositako liburuan. “Ihesaldia sustatu zutenen artean aldiz, arrazoi politiko bat ere bazegoen: Errepublika laguntzea”, gehitu du.



Esanguratsuak dira *Los fugados del Fuerte de Ezkaba* liburuan Ezkietak eskaintzen dituen datuak: “Gotorlekuko ihesaldian 795 preso dokumentatuk egin zuten ihes, eta horietatik 206 mendian tiroz hil zituzten”.



Fermin Ezkieta idazleak Lucía Larramendi eta Fermina Iraizoz garaiko auzotarren testigantzak jaso zituen *Los Fugados del Fuerte de Ezkaba* liburuan eta hauek, beharrezkoak izan dira informazioa lortu eta gorpuzkiak lurpetik ateratzeko.



“Zentsuraz gain, kontzientzia txarra zegoen garaiko prentsa lokalean ihesaldiaren inguruan: Ezin zen inor ez arro sentitu presoengan izandako basakeriaz”, azpimarratu du Ezkietak bere liburuan.



Francisco Etxeberria forentsearen arabera, 2015. urtetik 84 biktimen gorpuzkiak atera dira hobitik. 1936. urteko estatu kolpetik 80 urte baino gehiago pasa diren arren, oraindik ere familiak daude euren senitartekoen gorpuzkiak non dauden jakin gabe.



Hobi batzuetan ez da ezagutzen dauden gorpuzkien kopurua. Zenbaitetan, 20 baino gehiago zenbatzen dira.



Garaiko bertsio ofizialak hilketak justifikatu zituen, Ezkietak bere liburuan aipatu duen moduan, “harrapatuak izatean erresistentzia jartzeagatik, eta indar publikoaren autoritatearen aurrean desobedientzia egiteagatik eta horren aurka armak egiteagatik”.

Nafarroako Memoria Historikoaren Dokumentu Funtsaren datu basearen arabera, 14.502 lagun izan ziren Iruñeko Herrialdeko Espetxean gatibutasun egoeran eta Ezkabako Gotorlekuko Presondegian.



2017. urte bukaeran, Nafarroako hobien maparen arabera, soilik Nafarroan, 60 hobi baino gehiago falta ziren esku hartu eta hustutzeko.



Ezkabako presoen ihesaldia 1938. urteko maiatzak 22an gauzatu zen. “1999. urtean Olagüeko (Anue Bailara) errepidea handiagotzean, hiru biktimen gorpuzkiak aurkitu zituzten, eta hauek Etulaingo hilerriko hezurtokian bota ziren”, aipatu du Fermin Ezkieta idazle eta ikertzaileak aurkikuntzaren harira.





Aranzadi Elkarteko kideak eta Fermin Ezkieta ikertzailea hiritar askoren eskaerarekin ados daude: Frankismoaren biktimen bilaketa eta identifikazioaren beharra, urteak iraun duen ezjakintasuna alde batera utzi ahal izateko. Ezkietak “oinarrizko justizia” bat dela azpimarratu du.



Gaur egun arte, ihes egindako presoek 45 hilobi izan dira deshobiratuak eta ateratako gorpuzkiak familiei emanak.





Eztabaida guztien gainera

Ehuneko handi batean, 1936ko Gudako biktimen deshobiraketak familien eskaeren ondorioz gauzatzen dira. Hala ere, ez dira lan guztietan zuloak hustutzen. Batzuetan helburua gorpuzkien tokia ezagutzea da soilik.

Francisco Etxeberria forentsearen arabera, eta San Kristobalگو presoen Etulainen aurkitutako gorpuzkiekin gertatuko den bezala, gorpuzkien berri dutenetik hauek biktimen familiei entregatzen dizkien arte, hilabeteak pasa daitezke, batzuetan urte oso bat.





Deshobiratze prozesuaren iraupenaren inguruan Lizarrustiko portuaren adibidea gehitu du Francisco Etxeberriak: “Orain dela bi urte jakin izan genuen bertan hobi bat zegoela. Dokumentu batzuei esker tokia aurkitu dugu orain”.

Etxeberria forentseak iturrien beharra azpimarratu du: “Lizarrustiko portuan hobi baten bila ibili ginen eta garaiko haur batek erakutsi zigun lekua. Oso pertsona zaharra zen eta arazoak izan genituen mendira igo behar izan ginelako”



Etxeberriaren arabera, Aranzadi Zientzia Elkarteak 2000. urtean hasi zen deshobiraketak gauzatzen.



Orain, atzera begiratzeko analisi baten ostean, hezurdura bat aurkitu dute. Momentu honetan ikertzen daude, baita analisi genetikoak gauzatzen ere. “Igaro diren bi urte hauetan, zonaldea erakutsi zigun garaiko haur hori hil da”, gehitzen du forentseak.



Prozesu honetan zehar, kasu batzuetan lekukoak, informazio iturri beharrezkoak bihurtzen dira hobiak aurkitzeko orduan.



Arantzadi Zientzia Elkarteak kideek dokumentuak maneiatzen dituzte 1936ko Gudako fusilatu eta biktimen inguruan.



Estatu mailari dagokionez, Memoria Historikoa Berreskuratzeko Elkarteak aipatu daiteke deshobiraketa lanen erantzule bezala. Oscar Rodríguez boluntario bezala aritzen da elkarte horretan. Haren arabera, edozein erkidegotako familiaren bat laguntza eskatzen badu, elkarteak saiatzen da behar hori asetzen.



Memoria Historikoa Berreskuratzeko Elkarteak 200 hobi eta 1.500 pertsona ingururen gorpuzkiak atera ditu zuloetatik sortu zenetik.



Aranzadi Zientzia
Elkartearen langileen
zenbatekoari dagokionez,
Etxeberriaren arabera,
hamar eta hogeita
hamar langile bitartean
jarduten dira, hobien
tamaina, tokiaren
urruntasuna eta beste
faktoreen arabera.



Momentuan, Urbikainen (Nafarroa) aurkitutako buruezur bat aztertzen daude elkarteko antropologoek, horren sexua, adina, garaiera eta gaixotasunen bat zuen zehazteko helburuarekin.



Deshobiraketa eta ikerketak gauzatzeko elkarte gehienek baliabide propioak erabili behar izaten dituzte. Biktimen hezurak laborategian ikertu eta gero, Aranzadi Zientzia Elkarteak biktimen senitartekoei ematen dizkie, komenigarri deritzeten omenaldi eta agurrak egin ditzaten. Estatu mailari dagokionez, Jaenen (Andaluzia), adibidez, lehenengoz 2018. urte bukaeran atera dira biktimen gorpuzkiak hobi batetik, CanalSur hedabidearen arabera. Bitartean, kolpe militarraren biktimen familiek ikusgarritasuna eskatzen dute.





Sorian, hobi posible bat aztertzen dabilta ere Zientzia Elkartean. “Aurkitzen badugu, lurpetik atera, analisiak egin eta gorpuzkiak entregatzen ditugun arte, urte osoa pasa daiteke”, azpimarratu du forentseak. Garaiko lekukoen edo familiakideen testigantzak beharrezkoak dira gehienetan deshobiratze prozesua martxan jartzeko.



Elkarte askok bazkide eta norbanakoen erkapenei esker egiten dute lan, hala nola, Memoria Historikoa Berreskuratzeko Elkarte.



Oscar Rodríguez boluntarioak salatu du deshobiraketak pribatuen esku dagoen zerbait dela. “Arrazoi politikoengatik hil eta bota zituzten, eta arrazoi politikoengatik daude oraindik hor”, gehitu du.



Hobietan, sarri, 1936ko Gudan fusilatutako pertsonen objektuak topatzen dituzte, baita balak ere.



L110A
2047



Forentsearen arabera, hobiak hustu eta gero, batzuk hutsik geratzen dira, besteetan landa geratzen da eta beste batzuetan, monolito bat egiten da.



Aranzadi Zientzia Elkarteko laborategiko eraikina Donostin dago eta ikerketak alderdi zientifiko derberdinetan gauzatzen dituzte.

“Giza kontuengatik”

Hildakoen identifikazio eta lurperatzearen inguruan argi mintzatzen da Francisco Etxeberria. 1936ko Gudako bi bandoko biktimen tratamenduaren artean desberdintasun nabarmenak daude haren ustez. Forentsearen arabera, Valle de los Caídosen dauden 1936. urteko Gudako biktimen gehiengoa frankisten aldeko biktimak dira eta euren familien borondatez daude bertan. Etxeberriak dio, horren arrazoi nagusi bat, hilerriko tasak ez zituztela, eta gaur egun ere ez dituztela ordaindu behar da. “Falangisten gorpuren bat bilatzeko saiakerak egin ditzakegu, giza kontuengatik, baina ez gara alderdi honen biktimetan zentratuko, hauek hilerrri batean daudelako, izen batekin eta omenduta”, azpimarratu du. Forentsearen arabera, Gasteizetik 700 gorpu eramán zituzten Valle de los Caídos-era, Donostitik 125, Irunetik 60 eta Tolosatik 40.







FOTOERREPORTAJE ARTISTIKOA

Historia ez dadila errepikatu

Nafarroako Gobernuak Memoria Historikoaren tokiak babesteko ekintzak martxan jarriko ditu. Zenbait puntu Memoria Historikoko tokiak izendatuko dira, horiek mantendu, babestu, seinaleak jarri eta zabaltzeko helburuarekin.





Naiz.eus komunikabidearen arabera, honako leku hauek izendatu dira Memoria Historikoko guneak: Sartagudako Memoria Parkea, San Kristobal-eko Gotorlekua, Teileriako hobia (Elo), Valcarderako hobia, Otsaportilloko amildegia, Olabeko hobia, Igaletik Bidangozerainoko errepidea eta Erreniegako hobien oroimen gunea.





Errepresio frankistaren sinbolo bat da 1988. urtean Ezkaban eraikitako eskultura. 2018. urtean berreraiki behar izan zen hainbatetan eraso zutelako.







Nafarroako zonalde erdian kokatzen da Azkoien, gaur egun 5.800 biztanle dituen herria. Frankismoan errepresioa pairatutako emakumeen omenez egindako eskultura 2016. urtean eraiki zen, UPeI herriko ezker alderdi politikoaren gobernupean. Juan Carlos Castillo herriko alkatearen arabera, emakumeak izan dira oroimena bizirik mantendu dutenak.

Herritarren partaidetza sustatu nahi izan da ere irudi hauen bitartez. Izan ere, harrietan esaldi eta aldarrikapenak idatzi dituzte herriko bizilagunek.









Alargunen Herriko Elkarte eta Nafarroako Fusilatuen Senitartekoen Elkartearen eskutik jaio zen Sartagudako memoria parkea, 2008. urtean aurrekoak omendu eta gaurkoak sentsibilizatzeko helburuarekin. Paolo Albanese Sartagudako alkatearen arabera, herriko biztanle guztien artean harrera ona izan du parkeak hasiera eman zitzaion egunetik.



Frankismoaren biktimen izenak idatzirik daude parkeko gune batean.



Alargunen herria deitu zitzaion Nafarroako leku honi. Izan ere, 1936ko Gudak utzitako emakume alargunak dira Sartagudako Memoria parkeko ardatz nagusia.



Gernikako arbola irudikaturik dago parkean, zuhaitz txiki baten bitartez.



Diario de Noticias egunkariaren arabera, Gurseko errefuxiatuen esparrua 1939. urtean sortu zen, errepresio frankistatik alde egiten zuten pertsonentzat. Guztira, 18.000 erbesteratu iritsi ziren Gursera, horien artean nafar ugari, mugarekiko hurbiltasunagatik.

Ana Ollo Nafarroako Hiri eta Instituzio harremanen kontseilariaren arabera, Gurseko kontzentrazio-esparrua sinbolismoz beteriko espazio bat da. Haren hitzetan, alde batetik, “milaka espainiar errepublikanoen helmuga izan zelako, frankismoaren errepresiotik alde egin zutenak”. Bestetik, eta apur bat beranduago, “milaka juduen kontzentrazio-esparru izan zelako”.

Urtero hainbat belaunalditako jendea hurbiltzen da Gursen egiten den omenaldira.

Nahiz eta hasiera batean errefuxiatuen eremu bat bezala jaio, berehala kontzentrazio esparru bat izatera pasa zen.

Jose Ignacio de Sola bertan egon zen bere amarekin 6 urte zituelarik. Irunen jaio zen, baina guda zibila bukatu eta gero ez zen inoiz ez bere jaioterrira bueltatu.





1936ko Gudan nazioarteko brigadan bigarren errepublikaren alde borrokatu zuten pertsona batzuk gerturatu dira omenaldira.



Ana Ollok gogorarazi du aurten 1936ko Guda eta frankismo hasierako 80. urteurrena dela eta azpimarratu du giza eskubideen urrapenak gogoraraztea ezinbestekoa dela milaka pertsonen familiak erreparatzeko. “Gizarte demokratiko bat ezin da inoiz ez gizarte amnesiko bat izan”, gehitu du kontseilariak. Ollok “memoria gune” bezala definitu du Gurs, eta hauek babesteko garrantzia azpimarratu nahi izan du: “Gurseko kontzentrazio-esparrua memoria gune bikaina da, eta aipatu ditugun balioen transmisio tokia, zeinengatik hainbeste pertsona erail eta errepresioa pairatu zuten”.

Josu Erkoreka Eusko Jaurlaritzako bozeramaileak bere partetik, gaur egungo errefuxiatuek bizi duten errealitatearekin parekatu nahi izan du Gurseko kontzentrazio esparruan bizi izandako egoera.





Erkorekak bestalde Ana Olloren adierazpenekin bat egin du memoriaren garrantzia azpimarratzean, eta errefuxiatuen heren bat Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiatik joan zirela nabarmendu du. “Milaka pertsona euren ingurunetik aldendu behar izan ziren, senideak atzean utzita eta frantzia errepublikarrean erbesteratu ziren”, aipatu du. “Gurseko kontzentrazio-esparruan aldiz, ez zuten bilatzen zuten ezer ez aurkitu. Memoria berreskuratzea ez da bakarrik iraganera joatea, memoria oraina ere bada”, gehitu du bozeramaileak memoriaren kontzeptuaren harira.

Omenaldian gainera, Errenteriako “Dantzaz” dantza taldeak parte hartu du, espetxe eta erbestearen irudikapen bat eginez.



Gurseko hilerrian ehundaka hilarri daude eta horietako batzuei izena falta zaie. Gabezia horrek izenik gabe hobietan dauden pertsonak irudikatzen du. Ana Ollo kontseilariak eredugarri bezala definitu ditu Gursen izandako pertsonen jarrera. “Gurs elkartasun gune bat izan zen barnean zeuden pertsonen artean eta emakumeak ahalduntzeko gune bat ere, bizi baldintza izugarri gogorren aurrean. “, aipatu du.

Emandako hitzaldia bukatzeko Ollok berriro ere memoria nabarmendu nahi izan du: “Memoria, ez ahazteko. Memoria, ekintza tragiko horiek errepikatu ez daitezen”.







83 urte geroago

Frankismoaren biktima izandakoen gorpuzkiak non dauden jakitearekin nahikoa dute askotan gaur egun horien senideek.

**Batzuk informazio hori jaso gabe hiltzen dira,
bizitza osoa horren atzetik ibili eta gero.**

Hildakoen informazio dokumentu desberdinak berreskuratu eta denboran atzera egitea beharrezkoa da horiek aurkitzeko. Memoriaren Nafarroako Institutuak *Lur azpian* izeneko erakusketa aurkeztu du Nafarroako deshobiraketen prozesuen inguruan. Horren arabera, pertsona batzuk etxetik atera eta zuzenean hiltzera eraman bazituzten ere, gehienetan lehenbiziko atxilotu egin zituzten, eta espetxeren batera eraman.





Lidia Languizek 80 urte ditu eta Nafarroako herri txiki batean bizi da 26 urte zituenetik. Haur bat izanda bizi zuen 1936ko Guda, baina hau hasi eta urte batera, bere osaba etxetik atera eta hil zuten. Mariano Laguarda deitzen zen bere osaba. Senideek ez dute inoiz ez jakin non bota zuten bere gorpua. “Nekazaria zen, baina bere garaierako aurreratu bat zen. Nire aitonari askotan esaten zioten: Pobreen alde dagoela dirudi, esaiozu kontuz ibiltzeko”, azaltzen du Lidia Languizek. “Azkenean begiratu zer gertatu zen”, gehitu du.

“Bi edo hiru egun egoten zen kanpoan baina gero etxera bueltatzen zen. Etxetik kanpo eramane zuten bostgarren aldian ez zen gehiago bueltatu”, azaldu du. Languizen arabera, frankista ez izateagatik hil zuten bere aitona. “Dirua zor zion gizon batek salatu zuen”, gehitu du.



“Nire izeba hiru seme-alabekin geratu zen, (horietako bat oso gaixo zegoen), eta gainera bere aita-amaginarreben zaintzaren kargu”, azaldu du Lidia Languizek.

“Hasieran ezin zen ezer ez egin edo esan, nire izeba mehatxatu zuten. Nire lehengusinak hil ziren eta ez zuten noiz ez jakin non zegoen euren aita”, dio bizi izandakoaren inguruan.







Joaquin Urtasunen osaba San Kristobalen preso egon zen lau urtez. Bertatik irten eta gero, berriro atxilotu eta Alcalá (Madrilgo probintzia) eta Guadalajaran (Gaztela Mantxa) egon zen preso.

Rafael Echarte deitzen zen Urtasunen osaba. “Zurgaina zen eta altxamendua egin zenean alderdi sozialistan modu aktiboan parte hartzen zuten, bai nire amak eta baita nire osabak ere”, aipatu du Rafaelen ilobak.

“San Kristobalen egondako lau urte horietan presoan ihesaldirik handiena egiten da. Nire osabak ez zuen ihesaldian parte hartu, etorkizun argirik ikusten ez zutelako”, gehitu du gertakizun horren inguruan.



Joaquín Urtasunen arabera, bere osaba San Kristobalen preso egon zen denboran, bere ahizpak ia egunero igotzen ziren janaria ematera. “Thesaldiaren egunean, goizean, nire ama eta beste bi ahizpa gehiago bertan egon ziren eta ezusteko handia jaso zuten arratsaldean ihesaldiaren berri izan zutenean”, dio.

Familia askotan, isiltasuna gailentzen zen gerora gai honen inguruan hitz egitean. Rafael Echarteren familiaren kasuan ere horrela izan zen. Informazio guzti hau urteak pasa eta gero jaso du Urtasunek. “Nire etxean ez zen inoiz ez hitz egiten gai horri buruz, eta nire osaba nirekin bizi izan zen hil zen arte”, azpimarratu du bere ilobak.

Apellidos Echarte Garcia Nombre Rafael
 Conocido por _____ Prisión Provincial de Pamplona

Se halla a disposición de la Dirección General de Seguridad
6-4-44
27-5-44
19-8-44 Pamplona
13-12-52

Nombre del padre Miguel
 Nombre de la madre José
 Nombre del cónyuge Letras
 Edad 21 Naturaleza Berriozar
 Partido de _____ Provincia de Navarra
 Vecindad Pamplona Provincia id
 Domicilio Mujer 4.2 Profesión carpintero
 Delito se ignora C. S. G.
 Ingresó en 26 de enero de 1942
 Procedente de la capital
 Condenado por sentencia _____ de _____
 de 19 _____ a la pena de detenido 30 años
Pamplona do enero de 1942
 El Director _____

PRISION PROVINCIAL PAMPLONA
 Sello de Registro

(*) Indíquese concretamente Juez, Tribunal o Autoridad gubernativa.

CERTIFICADO DE LIBERACION DEFINITIVA

Don MIGUEL FRANCO PARTE, Director de la
 Prisión Provincial de Pamplona
 y Presidente de la Junta de Disciplina de la misma.


FILIACION Y RESEÑA
 Nombre RAPHAEL
 Naturaleza Berriozar (Navarra)
 Edad 45 años
 Pelo 8
 Ojos 29

CERTIFICO: Que en el día de hoy, y previa y aprobación del Tribunal sentenciador, se concede la libertad definitiva a RAPHAEL ECHARTE GARCIA de esta Prisión por haber extinguido su condena de 30 años, conmutada por 15 años de prisión de 15 años de 1942.

Alcalá eta Guadalajarako kartzeletatik pasa eta gero, epaiketa bat egin zen Burgosen, eta heriotza zigorra ezarri zioten Rafaeli. Azkenean, 30 urteko zigorrarengatik ordeztu zuten eta hau, 15 urteko zigorra izatera pasa zen. “Zentzu horreran zortea izan zueneteakoa izan zela esan dezakegu”, gehitu du Urtasunek.



Joaquinen ama ere kartzelan egon zen, ezagutzen ez dituen arrazoiengatik.



“Niri pena handia ematen dit momentuan ez galdetu izanak, baina nire senideek hainbeste min jasan zuten, ez zutela hori transmititu nahi”, esan du Joaquin Urtasunek, Rafaelen ilobak.



Rafaelen ilobak gordetzen dituen dokumentuak
bere osaba hil eta gero berreskuratu ditu.

“Nire osabaren delitua langile-klasea defendatzea eta ideologia sozialista izatea izan zen. Ez armarik ez ezer ez”, aipatu du Urtasunek. Bere hitzetan, familia osoak pairatu zuen frankismoaren errepresioa. “Fotokopia bat daukat, eta bertan aipatzen da nire ama kartzelan egon zela, ez dakigu zergatik. Hilerik gabe utzi zuten”, dio. Anai gazteena, bestalde, gerran egon zen, alderdi Nazionalan. “Nahitaez, imaginatzen dut”, gehitu du horren inguruan.

“Horretaz gain, nire izeba, Dora Echarte, Frantziara joan zen, garaian zeukan mutilagun bat joan behar izan zelako eta Dora, bere bila joan zen”, aipatu du bere familiaren inguruan. “Beste beste ahizpa batek Doraren izenean egin behar izan zuen lan, bere ihesaldia ezkutatzeko”. Joaquín Urtasunek, familiak etorkizunean izandako ondorioen inguruan, azaltzen du azken ahizpa honek ezin izan zuela erretiroa hartu egokitzen zitzaionean, bere ahizparen izenean lan egin zuelako zenbait urtetan.



1952. urtean libre atera zen Rafael eta 1986. urtean hil zen, 76 urtekin.





Mertxe Benedék 72 urte ditu eta azken urteetan jakin izan du bere osabak bizi izandakoa. “Nire aita eta bere anaiak CNTko militanteak ziren, hau da, langile sindikalistak. Errepublika garaian jarduten ziren eta horregatik seinalatu zituzten. Anai gazteena San Kristobalen fusilatu zuten”, aipatu du.


Jose Benedéri indultua aitortu zioten, baina ez zen San Kristobaletik bizirik atera. “Heriotza-agirian aipatzen da ihesaldian hil zela. Baina ordutako aske egon behar zen. Berez, aske utzi zuten eta kartzelatik alde egiteko esan zioten”, aipatu du. Heriotza-agirian traumatismo baten ondorioz hil zela esaten da. Mertxeren hitzetan, “tiro batek eragindako traumatismo baten ondorioz”.



José Benedé preso izandakoaren argazki bakar bat daukate gaur egun.





18 urte zituela sartu zuten Jose Benedé San Kristobal fuerteko kartzelan.



Bizi izandako errealitatea islatzen duen istorio bat kontatu du, bere ama gogoratuz: “Familia, atxilotu eta San Kristobalen zegoela enteratu zenean nire ama bisitan joan zen, nire anai nagusienarekin.” Presoaren ilobak dio bere osabak bere lehen ilobari muxu bat ematea posible zen galdetu ziola guardiari. “Nire amak esaten zuen honek kolpe bat eman ziola armarekin eta bisita bukatu zela”, gehitu du. Ez zuten gehiago ikusi, ez zuten ezer ez jakin berari buruz.

Miguel Torregrosa Mertxeren familiakidea da. Haren ustez, emakumeei esker mantendu ziren familiak. “Zalantzarik gabe emakumeak izan ziren aurrera jarraitzea lortu zutenak, hilea soildu eta errizino-olioa hartzera behartzen zituztenean. Emakumeei esker seme-alabak aurrera atera ziren”, aipatu du.

Mertxe Benedé: “Nire aitak ez zuen inoiz ez horri buruz hitz egin. Herri txiki batean bizi ziren, non bi alderdikoak ezagutzen ziren. Ez dugu inoiz ez ezer ez jakin eta sinestarazi egin digute garaileena lorpen handi bat izan zela, krudelkeria bat izan zenean.”.



Garaiko familiakideen arteko eskutitz ugari gordetzen ditu Mertxek.



EL AYUNTAMIENTO DE PAMPLONA/IRUÑEKO UDALA,
**"En memoria y homenaje a los 308 vecinos y vecinas de Pamplona asesinados a raíz del golpe militar
 contra la II República en 1936"**
"1936an II. Errepublikaren aurkako kolpe militarren ondorioz hildako 308 iruindarren ohoretan eta halen oroigarri"

ABAD VERGARA, Vicente	ERICE ALEMÁN, Melchor	LAMBERTINI SOLCHAGA, Jesús	PRIMO USTARROZ, Joaquín
AGUERRALDE MARIEZURRENA, Francisco	ESCOBAR PÉREZ, Miguel Antonio	LANDA ELORZA, José Manuel	QUIRÓS CÍVICOS, Manuel
AGURRUZA MARTÍNEZ, Jaime	ESCUDERO BERDONCES, Francisco	LARRAMENDI RECALDE, Teodosio	RAMOS GARCÍA, Ramón
AJONA URBIOLA, Vicente	ESPILA DIVISIÓN, Antonio	LARRAZA GIL, Narciso	RAMOS MARTÍNEZ, José
ALBO URCELAY, Gregorio	ESPOZ INCHAUSPE, Dionisio	LARRAZA LIZARRAGA, Luciano	REBOLLEDO ANTOLÍN, Ricardo
ALDAVE BEORLEGUI, Juan	ESTABOLITE HUALDE, Francisco	LARRETA LARREA, Juan	REDÍN IDOATE, Eucario
ALDUA JAURRIETA, Tirso	ESTEBAN ARIAS, Mariano	LARUMBE ZÚÑIGA, Luis	REDÍN LABIANO, Pablo
ALFARO HERNÁNDEZ, Pedro	ESTEBAN MASIP, Pascual	LASA ANDUEZA, Félix	RÍOS FRANCÉS, Dionisio
ALFARO HERNÁNDEZ, Santos	EXPÓSITO *, Luis Guillo #	LASUEN CAMPO, Anastasio	RIPALDA CÁMARA, Lucio
ALFARO ZABALEGUI, Florencio	FERNÁNDEZ ANDRÉS, Fidel	LATIENDA ASIÁIN, Isidoro	ROA GARCÍA, José
ALONSO FUSTER, Eduardo	FERNANDINO URDÁNIZ, Francisco	LAZÁRO *, *	ROBLEDO GONZÁLEZ, José
AMADOZ AGUINAGA, José María	FRAILE EZQUERRO, Arturo	LEOZ BEROZ, Francisco Salvador	RÓDENAS MARTÍNEZ, José
AMATRIA SAN JOSÉ, Ángel Pablo	FRESNO URZAY, Ricardo	LIZARZA MARTÍNEZ DE MORENTIN, Francisco	RODRÍGUEZ MÉNDEZ, Gumersindo
AMATRIA USUNARIZ Eduardo	FUENTES OLVÉS, Feliciano	LLUCH QUILLIRE, Jaime	RODRÍGUEZ-MEDEL BRIONES, José
ANAUT *, *	GALARZA ALBÉNIZ, Benigno	LÓPEZBASCARÁN, Matías	ROJO QUIRCE, Calixto
ANDRAIZA DOMENECH Carmelo	GALBETE ETULAIN, Alvaro	LÓPEZCÁRCAR, Basilio	RONCAL LASANTAS, Joaquín Carmelo
ANDRÉS GONZÁLEZ, José	GARCÍA DEL OLMO, Antonio	LÓPEZ JIMÉNEZ, Octavio	ROYO *, *1
ANGULO MARTINEÑA, Gregorio	GARCÍA ENCISO, Victorino	LOS SANTOS ARNEDO, Juan	ROYO *, *2
ARBIZU SARALEGUI, Dámaso	GARCÍA FALCES, Otilio	LUZAN OCHOA, Tomás	RUBIO MIRANDA, Félix
ARBAIZ SANFELICES José A.	GARCÍA GANUZA, Juan de Dios	LUCUS ARAMENDÍA, Santiago	RUEDA PÉREZ DE LARRAYA, José
ARIZ OTEZA Tomás	GARCÍA OLLO, Conrado	LURI AMIGOT, Félix	RUIZ CERDAN, Fulgencio
ARRASTIA REDRADO Juan	GARCÍA RUIZ, Isidoro	MAESTRO ZILBETI, Eduardo	RUIZ CERDÁN, Constanancio
ARROBA JIMÉNEZ Teófilo	GARDE GARGALLO, Ismael	MARCO SALDISE, Francisco	RUIZ ENCINAS, José
ARROYO ALFARO Agustín Joaquín	GARJÓN ARÓSTEGUI, Mario Germán	MARÍN GOÑI, Miguel	RUIZ LARA, Jerónimo
ARROYO ALFARO, José María	GARJÓN ARÓSTEGUI, Moisés	MARQUES CAMPOS, Isidoro	SADA ARISTU, José
ASTIZ ARANGUREN, Enrique	GARRIDO REDONDO, Bruno	MARTÍNEZ ATIENZA, Bienvenido	SÁDABA URQUÍA, Luciano
ASURIMENDI MAYORA, José María	GARRIDO REDONDO, Teodoro	MARTÍNEZ FRIERA, José	SÁEZ MORILLA, Mariano
AUCARAZPE IRUÑUELA Francisco	GAVILÁN ANTÓN, Juan	MARTÍNEZ GARCÍA, Baldomero	SAINZ CARTAGENA, Abel Hermenegildo
AYESA *, Manuel	GIMENO SETUÁIN, Julián	MARTÍNEZ LARRAYOZ, Ángel	SALINAS BEORLEGUI, Tomás
AZCÁRATE *, *	GOICOECHEA *, Antonio	MARTÍNEZ URTIAGA, Faustino	SALINAS VÉLEZ, Juan Bemabé
BANDRES ECHESURI, Darío	GOICOECHEA AZCONA, Juan	MAZO BUIL, Emilio	SAN MARTÍN URROZ, Vicente
BEA SOTO, Javier	GOICOECHEA GUINDA, José	MELCHOR IRURE, Enrique	SAN PEDRO CHOCOLONEA, Ignacio
BEA SOTO, Manuel	GOICOECHEA GUINDA, Luis	MIENAYA MARCO, José Luis	SÁNCHEZ ESQUIROZ, Agustín
BEA SOTO, Pedro	GOICOECHEA GUINDA, Serafín	MENCOS ROSAIN, Isidro	SANTIAGO CORTÉS, Carlos
BEGUÉ ASTARRIAGA, Fortunato	GOMARA IROZ, Manuel	MÉNDEZ VELA, Antonio	SANZ CASADABA, Vicente
BELLÓN CRESPÁN, José	GÓMEZ ALONSO, Artencio	MESTRE ELZONDO, Pedro Javier	SANZ MARTÍN, Manuel
BELLOSO GARCÍA, Pedro	GONZÁLEZ IGLESIAS, Miguel	MICHEL DÍAZ, Vicente	SANZANO LAVERNA Juan B.
BELZUNEGUI GOICOECHEANDIA, José	GOÑI *, José	MILAGRO LLANOS, Eugenio	SEMINARIO GALICIA Eugenio
BENGARAY ZABALZA, Ramón	GOÑI JAUREGUI Félix	MORENO VELA, Luis	SERÓN MARCO Manuel
BERNAL SANTOS, Andrés	GOÑI MACHICOT, Mariano		
BERRADRE *, Mariano	GOÑI LLANUEVA, Juan		
BETUELLARRIAGA, José			

Luzaroan iraun duen isiltasuna eta horrek eragin duen ahazteak dira errepresioa jasandako familietan errepikatzen diren bi ezaugarri. Mertxe Benedék aipatzen du familian gehienetan gaiari buruz hitz egiten ez zen arren, osaba batek kontatzen zizkiola garaiko zenbait istorio. “Nire aitaren beste anai batekin, urteak pasa eta gero apur bat hitz egiten nuen gaiari buruz. Baina kanpotik galderak egiten ziotenean ez zuen erantzun nahi”, esan du. “Nik esaten nion bizirik geratzen zen azken anaia zela eta gauzak idatzita utzi behar genituela, baina ez zuen nahi”, gehitu du isiltasunaren inguruan.

Gizarteak gaur egun duen erantzunkizuna azpimarratu du preso izandakoren ilobak: “Parte hartu, hitz egin eta eztabaidatu behar dugu. Hori da gure aurrekoek utzi diguten mezua”.





EL AYUNTAMIENTO Y LA CIUDAD DE PAMPLONA, EN M
Y AL RESTO DE PERSONAS ASESINADAS Y REC
NUNCA MÁS NI PARA NADIE AQUELLOS HORRORES
IRUÑEKO UDALAK ETA IRUÑA HIRIAK ESKAINIA, ERREPU
GAINERAKO PERTSONA ERAILEI, ZEINAK HEMEN HOBIRAT



MEMORIA Y HOMENAJE A LAS 308 PERSONAS ASESINADAS POR DEFENDER LOS VALORES REPUBLICANOS
REUPERADAS DE FOSAS COMUNES, INHUMADAS AQUÍ, SIN HABER PODIDO SER IDENTIFICADAS.

SEKULA EZ INORENTZAT EZ HALAKO IZUGARRIKERARIK BERRIRO

REPUBLIKAREN BALIOAK DEFENDATZEAGATIK HIL ZITUZTEN 308 PERTSONEI ETA HOBI KOMUNETATIK ATERATAKO
GURRIK BAITAUDE EZIN IZAN DIRELAKO IDENTIFIKATUAK IZAN. HORIEK GUZTIAK GOGOAN ETA HORIEN OMENEZ.

Aurrera egin, gogoan izanda



Nafarroako Fusilatuen Senitartekoen elkarteak urtero antolatzen du frankismoaren errepresioa pairatu zuten pertsonak aitortzeko omenaldi bat, Iruñako Gaztelugibel kaleko plazan. Aurten apirilaren 13an izan da omenaldia, Bigarren Errepublikaren eguna baino egun bat lehenago.

Nagusiak dira beti ekintza honen protagonistak, eta malkoak, oroitzapenak, solasaldiak eta baita barreak ere partekatzen dituzte bertara hurbiltzen direnen artean.







Trini Larraza omenaldiaren protagonistetako bat da. 1941. urtean jaio zen. “Guda hasi zenean Arbizun hiru emakume irakasle zeuden: nire izeba eta beste bi. Euskararen jarraitzaile izateagatik zigortuak izan ziren”, aipatu du. Hiru urtez ezin izan zuten lan egin. “Etxarrin emakume eta irakasleei hilea mozten zien gizon bat zegoen. Nire ama beti beldurrez bizi zen, bere buruari galdetzen nire izeba noiz hilko zuten”, gehitu du. “Beldurra” hitza behin eta berriz aipatzen du Trini Larrazak.





Uxue Barkos (goian) izan da omenaldian, baita Ana Ollo kontseilaria ere. Jose Luis Arasti Nafarroako Gobernuko odezkarria, eta Geroa Bai, PSN, Podemos eta Izquierda-Ezkerra alderdietako ordezkariak ere gerturatu dira.





Fusilatutakoen senideak hurbildu dira omenaldira
eta publikoaren lehen ilarako esertokiak bete dituzte.





Aurtengo omenaldian aipamen berezia egin zaio Mariano Saez nafarrari. Saez, abokatua, irakaslea eta Iruñako zinegotzia izan zen 1931. urtetik 1934. urtera bitartean, magisteritza eskolako zuzendaria, UGTko irakaskuntza federazioko presidentea eta PSOE alderdiko militantea. Ripan hil zuten 1937ko otsailaren 10ean. Sara Cordón Mariano Saezen biloba, Gaztelugibel plazan egon da eta bere aitonaren garrantzia maila profesional, politiko eta sindikalean azpimarratu nahi izan du.

Sara Cordónek horrela azaldu du garaiko egoera: “Hezkuntza lehentasun bat izan zen bigarren errepublikako gobernuarentzat. 1931. urtean, analfabetismoak biztanleria osoaren %30-50ari eragiten zion”, dio. Cordónen arabera, soilik Nafarroan, 300 irakasle baino gehiagok pairatu zuten errepresioa, eta bere aitona horietako bat izan zen.

Sara Cordónen amona ere irakaslea izan zen eta zigorrak ere jasan zituen. “Bere senarra galtzeak suposatzen zuen minaz gain, nire amonari denbora luzez lan egitea debekatu zioten, bost seme-alaba mantendu behar zituelarik”, azaldu du Cordónek.

Patxi Telletxeak aurkeztu du ekimena eta guda zibilean erahildako 3.452 nafarri eskaintzen zaiela omenaldia azpimarratu du. “Gizon eta emakume horiek delitu bakar batengatik sinatu zuten euren heriotza-epaia: bere eskubideengatik borroka egitea”, esan du.





Lore gorriak eta bandera errepublikarrak omenaldiko sinbolo ikur izan dira.





Amaia Lerga Nafarroako Fusilatuen Senitartekoen Elkarteko presidenteordea da eta omenaldian izan da. Bere mintzaldiaren bitartez, 1936ko Guda eta frankismo garaia gogoratu nahi izan du, egoera desberdinak azpimarratuz. “Frankismoak, lurren banaketa, emakumeen eskubideak edo estatuaren laikotasuna aurrera ez egitea eragin zuen. Genozidio bat burutu zen eta oraindik ez da zigortu”, esan du.

Erbesteko errealitatea ere azaldu du, pertsona horien guztien aitortpena eginez. Lergaren hitzetan, ia milioi erdi errepublikarrek gurutzatu behar izan zuten muga. “Horien heren bat, emakumeak, adinekoak eta haurrak ziren.”, dio horren harira. Lergak Julia Alvarez irakasle eta abokatuaren adibidea aipatu du eredu bezala: “Liburutegi baten sorrera bultzatu zuen bere herrian eta probintzia bateko lehen emakume agintaria izan zen”.



“Erbesteratu ziren pertsonen eta euren familien mina aitortu nahi dugu gaur, badakigulako injustiziak oraindik min egiten duela”, nabarmendu du Nafarroako Fusiltuen Senitartekoen Elkarteko presidenteordeak. Bestalde, aipamen berezi bat egin du bere diskurtsoaren bitartez, eta kolektibo desberdinak aipatu ditu salaketa bat eginez: “Torturak jasan, atxilotuak, fusilatuak, lapurtuak edo bazterturik izan ziren pertsonak. Emakumeak, LGTBIQ kolektiboa, gogoan zaituztegu”.

Erorien monumentuaren auzia ere aipatu du Amaia Lergak, Iruña eta Nafarroako irudia “zikindu” egiten duela nabarmendu duelarik. “Heriotzaren monumentua, goiko puntatik beheraino bota beharko zen monumentua”, salatu du.

Buakatzeko, Lergak, hobiak hustutzeko garrantzia azpimaratu du: “Hobi zail edo bideraezinak ez daitezela egon. Errepideak altxatu, hezurtokietan bilatu eta lur tonak nahasi behar badira, egin dadila”.





Ekimenari emaiara emateko, Nafarroako Fusilatuen Senitartekoen Elkarteko boluntario eta bertaratutakoek lore eskaintza bat egin dute plazan dagoen harrizko monolitoan.

Esan bezala apirilaren 13an egin da ekimenn hau aurten, Bigarren Errepublikaren eguna baino egun bat lehenago. Aurten, memoria historikoa hain gertu eta aldi berean hain urrun dagoen egunetan. Kolektibo desberdinek desagerturik dauden frankismoko biktimen gorpuzkiak eskatzen dituzten bitartean, elkarteak beharrezkoak direlako oraindik prozesu horiek aurrera eraman ahal izateko.







